

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Deialdia, gazteei dirulaguntzak emateko, 2016an praktikak egin ditzaten enpresetan

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2016ko azaroaren 4an, onartu zituen gazteei praktikak egiteko dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri arauak.

Enpresetan praktikak egiteko gazteentzako dirulaguntzak emateko deialdi hau, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2016ko azaroaren 4an onartua, aipatutako oinarri arauetan eta hurrengoetan xedatutakoari lotuko zaio.

Lehenengoa. Deialdia

10 beka deitzen dira, lehia bidez, gazteek praktikak egin ditzaten enpresetan, bost unibertsitate tituludunentzat izango dira eta beste hainbeste lanbide goi heziketako tituludunentzat, deialdi honen I. eranskinean egindako deskribapenarekin bat etorriz.

Bi modalitateetako batean nahikoa eskaririk ez badago, Gazteriaren Foru Erakundeak aukeran izango du beste modalitateko beka kopurua gehitzea, gehienezko beka kopurua 10 izango delarik bi modalitateetarako.

Deialdi hau SEA Empresarios Alavesesekin egiten da, erakunde laguntzaile gisa, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta lankidetzari hori arautuko duen hitzarmen bat egingo da elkarte horrekin. Hitzarmen horren bidez, SEA Empresarios Alaveses elkartearen praktikaldi bat egiteko prestakuntza programa bat garatuko da, bekadunen gaitasun profesionalak hobetzearren.

Bigarrena. Xedea eta iraupena

1. Xedea da laguntzak eta haiek emateko oinarriak ezartzea, gazte tituludunek praktikak egin ahal izan ditzaten enpresetan, prestakuntza garaian jasotako ezagupenak beren kualifikazio esparruan garatzeko.

2. Beken iraupena, gehienez, sei hilabete izango da; eta eguneko lanaldia 6 ordukoa.

Hirugarrena. Izangaien betekizunak

Oinarri hauetan araututako laguntzak jasotzeko, 18 eta 30 urte bitartean izan behar da 2016an eta honako betekizun hauek bete:

a) Espainiako edo Europar Batasuneko estatu kide bateko herritarra izatea.

b) 2012ko abenduaren 31z geroztik Araban edo Trebiñuko Konderrian erroldatuta egotea.

c) Beka mota bakoitzerako eskatutako titulazioa izatea eta titulu hori 2014ko urtarrilaren 1a eta gero lortu izana. Unibertsitate ikasketen kasuan, data hori dagokio betekizun diren ikasketak lortu diren datari. Espainiatik kanpo lortutako tituluek homologatuta egon beharko dute.

d) Ez dute deialdian parte hartzerik izango antzeko deialdietan Arabako Foru Aldundiaren beka lortu dituzten pertsonak.

e) Izangaien prestakuntza akademikoa beken prestakuntza arlora egokitzeko, profil batzuk zehaztu dira, non titulazioak harreman egokia izango duen eskatzen den bekaren edo beken espezialitatearekin, eta horrako hori I. eranskinean zehaztutako egokitasun mailaren arabera balioetsiko da. Horretarako, hartan ageri diren agiriak aurkeztu beharko dira.

Laugarrena. Beken zenbatekoa

Dirulaguntza poltsa bat ezartzen da, hileko bostehun eta hirurogeita lau eta hirurogeita hamasei zentimokoa (564,76 euro), eta, horietatik, Gizarte Segurantzaren dagozkion kuotak kenduko dira.

10 beken onuradun gertatzen diren pertsonen Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzeko mekanismoak aplikatuko zaizkie, urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuan aipatzen direnak, inoren konturako langileen kidekotzat jorik.

Horrela, SEA Empresarios Alaveses elkarteak, enpresari gisa, dagozkion kuotak ordainduko dizkio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, salbu desenpleguari, FOGASARI eta lanbide heziketari dagozkion kontingentziak.

Beketarako izendatutako dirua ordainduko da deialdi honetako hamalaugarren klausulan ezarritakoarekin bat etorriz.

Zenbateko horiek dagokion atxikipena izango dute, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, ezarritakoarekin bat etorriz.

Abuztuaren 1eko 27/2011 Legeak, Gizarte Segurantzaren Sistemaren eguneratze, egokitze eta modernizatzeari buruzkoak, ezarritako kotizazio araubideari lotuta dago prestakuntza beka bakoitza.

Gazteriaren Foru Erakundeak beka finantzatzeko onartutako zenbatekoa 30.000,00 euro da, Gazteriaren Foru Erakundearen 2016ko aurrekontuko 71.1.00.10.00.481.00.02 partidaren kontura.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

1. Deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hogeitau egun izango dira eskaerak eta ondoren zerrendatzen diren agiriak aurkezteko. Eskaera Gazteriaren Foru Erakundeak eskura jarriko duen eredu normalizatuan aurkeztuko da, behar bezala beteta. Eredu hori Gazteriaren Foru Erakundearen web orrian (www.araba.eus/gazteria) edo Gasteizko Landazuri 3 zk. behean eskura daiteke.

Eskaera eredu horrekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

1. Eskatzailearen NANaren fotokopia konpultsatua.
2. Araban edo Trebiñuko Konderrian erroldatuta egotea ziurtatzen duen agiria.
3. Titulu akademikoen fotokopia konpultsatua.
4. Espediente akademikoaren ziurtagiria, batez besteko nota jasotzen duena, edo GFEEK konpultsatutako fotokopia.
5. Ziurtagiri ofizialen eta hizkuntzen ezagutza ziurtatzen dutenen fotokopia konpultsatua.
6. Diruz lagundutako jarduera bererako beste erakunde publiko zein pribatu batzuen laguntzarik ez dela ziurtatzen duen zinpeko aitortpena. (Eredua GFEEKen web orrian)

2. Egokitzearen izangaien ikasketak beken prestakuntza arloei, ikasketa adar edo familia batzuk ezarri dira, eta haietako bakoitzeko titulazioak zerikusia eduki beharko du eskatzen den bekari dagokion espezialitatearekin.

Pertsona bakoitzak bakarrik aurkeztu ahal du eskaera bat.

3. Beka beteta eta arauzko agiriak erantsita, Gazteriaren Foru Erakundearen aurkeztuko dira; edonola ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan ezarritako bideak erabilita ere aurkeztu ahal izango dira.

Eskaeran berariaz adieraziko da jakinarazpenetarako helbidea, eta eskaera aurkezteak esan nahi du erabat eta berariaz onartzen dela oinarri hauetan ezarritakoa.

4. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eskaerak ez baditu deialdian eskatutako sarbide betekizunak betetzen, Gazteriaren Foru Erakundeak interesdunari eskatuko dio agirietan diren hutsak zuzen ditzala eta berriro aurkez ditzala, eta horretarako hamar egun baliodun aitortuko dizkio. Epe hori igaro eta zuzendu ez baditu, esan nahiko du eskaera berriro aurkezteari uko egin diola eta, hari buruzko ebatzia hartu ondoren, artxibatu egingo da, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21.1 artikuluan xedatutako eran.

Seigarrena. Eskaerak izapidetuko eta balioetsiko dituzten organoak

1. Hautaketa, Jarraipen eta Interpretazio Batzorde Iraunkorra eratuko da eskaerak aztertu eta balioesteko.

2. Hauek eratuko dute Hautaketa, Jarraipen eta Interpretazio Batzorde Iraunkorra:

a) Gazteriaren Foru Erakundearen Idazkaritza Teknikoko burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

b) Zerbitzu Orokorretako teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona.

c) Gazteriako teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona.

3. Kualifikazioa egokia badute, batzordeko kide ez diren adituak parte hartu ahal izango dute Hautaketa, Jarraipen eta Interpretazio Batzorde Iraunkorrean, eskaerak balioesten laguntzeko. Batzordeak berariaz proposatu eta onartuko du pertsona horien izendapena.

Zazpigarrena. Izapidetzea, eskaerak balioestea eta prozedura ebaztea

1. Hasierako fasean, eskabideak baloratu egingo dira deialdi honetako II. eranskinean ezarritako irizpideen arabera. Eskaeran aurkeztutako agiriak kontuan hartuz balioetsiko dira merezimenduak; hau da, agiri bidez egiaztatzen direnak baino ez dira aintzat hartuko. Beharrezkoa bada, Hautaketa, Jarraipen eta Interpretazio Batzorde Iraunkorrek agiri argigarri osagarriak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei alegatutako merezimenduak egiaztatzeko; horretarako emandako epean, ez da eskaerak aurkezteko epean ez aurkeztutako merezimendurik egiaztatzen duen agiririk onartutako.

2. Behin eskabideak baloraturik lehenengo faserako ezarritako irizpideen arabera, Hautaketa, Jarraipen eta Interpretazio Batzorde Iraunkorrek txosten bat emango du lehenbiziko faseko balorazioaren emaitza zehaztuz, eta, hartara, zerrenda bat egingo du, hautagaiek lortutako puntuazioen baturaren arabera antolatua, eta puntuaziorik handiena lortu duten eskabideen artetik gutxienez hiru pertsona hautatuko ditu zerrenda bakoitzean, banan-banako elkarrizketa bat egiteko. Horretarako, pertsona bakoitzari jakinaraziko zaio noiz eta non egingo den elkarrizketa. Elkarrizketara agertu ezean, bekari uko egin zaiola esan nahiko du, eta prozeduratik baztertzea ekarriko du. Hala gertatzen bada, puntuazio hurrenkeran hurrengo datorren pertsonari egingo zaio elkarrizketarako deia.

3. Behin amaiturik hautaketa prozedurako bigarren fasea, Hautaketa, Jarraipen eta Interpretazio Batzorde Iraunkorrek txosten bat emango du, egindako ebaluazioaren azken emaitza zehaztuz eta hautagaien hurrenkera antolatu bat emanez fase batean eta bestean lortutako puntuazioak batuta ematen duen emaitzaren arabera, eta, ondoren, Gazteriaren Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailerari aurkeztuko dio.

4. Bekadunak hartu behar dituzten enpresek eskaintzen dituzten postuei esleituko zaizkie beka, puntuazio handiena lortu duenarengandik hasita, eskatzailearen titulazioaren arabera.

5. Berdinketarik izanez gero, espediente akademikoaren azterketan puntu gehien lortu dutenek izango dute lehentasuna.

6. Ebazpen proposamena egindakoan, Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendaritza-kudeatzaileak ebazpen arrazoitua egingo du. Ebazpen horretan beken esleipendunak eta haien ordezkioak onartuko ditu, esleitutako postuaren eta enpresa hartzailearen datuak barne.

Ebazpen adierazia egin eta jakinarazi gabe igaro badira sei hilabeteak, asmoei uko egin zaiela esan nahiko du.

7. Emandako beka guztien zerrenda argitaratuko da Gazteriaren Foru Erakundearen web orrian eta, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 42 artikuluekin bat etorriz, banan-banan jakinaraziko zaie hautatutako pertsoneri. Pertsona horiek hiru egun izango dituzte parte hartzea baiesteko edo ezesteko idatziz.

Zortzigarrena. Praktikak nola gauzatuko diren

Praktikak gauzatuko dira SEA Empresarios Alaveses elkarteko kide diren enpresetan, eta elkarteak berak enpresari gisa jokatu du, eta, beraz, berak hartuko du ardura, praktikak egiteko bekadunak hartuko dituzten enpresak bilatzeko ez ezik, baita Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari dagozkion kuotak pagatzeko ere, eta, halaber, istripu eta erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuko du.

Praktikak egiteko, hitzarmen bat egingo da praktikak egin behar dituen pertsonaren, SEA Empresarios Alaveses elkartearen eta Gazteriaren Foru Erakundearen artean.

Hitzarmen horren eranskinetan, hauek jasoko dira: praktika proiektua, eginkizunak eta intereseko jotzen den beste zernahi.

Bederatzigarrena. Ordezkatze prozedura, beka hutsik geratzen direnerako

1. Onuradunak uko egiten badio bekari behin bekaldia hasi eta gero, idatziz jakinarazi beharko dio alde aurretik Gazteriaren Foru Erakundeari: uko egitea zein egunetatik aurrera onar dakion eskatzen duen, egun hori baino hamabost egun lehenago. Uko egite horrek berekin ekarriko du gauzatu gabeko beka zatiari dagozkion eskubide ekonomikoak galtzea.

2. Prestakuntza bekaren bati uko egiten bazaio edo beka hori eman eta gero baliogabetzen bada, puntu hurrenkeraren arabera hurrengo pertsonari esleitu ahal izango zaio falta den denborarako, baldin eta denbora edo aldi horrek bekaren helburua betetzea ahalbidetzen badu.

Hamargarrena. Baliogabetzea

Hauetakoren bat gertatzen bada, Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari-kudeatzaileak, Hautaketa, Jarraipen eta Interpretazio Batzorde Iraunkorrak proposatu eta arrazoituta, baliogabetu egin ahal izango du beka eman izana edo eten beka aldia:

- a) Eskatutako baldintzak eta betekizunak aldatu egin direlako, horiek bete gabe, beka lortzea.
- b) Hurrengo artikuluan xedatutako betebeharrak zeinahi ez betetzea eta esleitutako eginkizunak epe barruan eta dagokion eran ez egitea.
- c) Behar besteko ardurarik ez erakustea eta etekinik ez lortzea, Hautaketa, Jarraipen eta Interpretazio Batzorde Iraunkorrak txostena egin ondoren.

Hamaikagarrena. Bekaren esleipendunen betebeharrak

Hona hemen prestakuntza beken onuradunen betebeharrak:

- a) Praktika hitzarmenean ezarritako epe eta baldintzetan hastea lanean. Beka hauen langai diren jardueren garapenak ezinbestez eskatzen du bekadunek beka bakoitzerako zehazten den enpresan bertan lan egitea.
- b) Eraginkor garatzea aurreikusitako lan plana, praktika hitzarmenean xedatutakoarekin bat etorriz. Alderdiek bat etorriz gero, aldatu egin ahal izango dira hasiera batean adostutako lan lerroak.
- c) Diskrezio osoa izango da praktika aldian zehar eskura izan daitezkeen agiri eta informazioari buruz.
- d) Gazteriaren Foru Erakundeari jakinaraziko zaio zernahi gorabehera.

e) Praktikei buruzko txosten bat aurkeztuko da beka aldia bukatu eta hilabete igaro baino lehen. Jasotako prestakuntzaren egiaztagiria eskuratuko da, prestakuntza aldia bukatu eta txostena balioetsi eta kalifikatutakoan.

f) Onartu egingo da Gazteriaren Foru Erakundeak egin nahi dezakeen zernahi egiaztatze jardun eta eskatzen zaion zernahi informazio emango du, zuzenean zein Arabako Foru aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren, baimendutako auditorien edo organo eskudunen bidez.

Hamabigarrena. Beken pilaketa eta bateraezintasuna

1. Deialdi honetako beka bateraezina da funts publiko edo pribatu espainiar nahiz Europar Batasuneko batek emandako beste edozein bekarerkin.

2. Era berean, bekadunak, praktika aldian, ezingo du jaso inolako ordain ekonomikorik, diruzko edo gauzazko ordainsaririk ez lanbide saririk praktiketarako hartuko duen enpresarekin lotura zuzena edo zeharkakoa duen lan edo lanbide jarduera bat gauzatzearatik.

3. Era berean, bateraezina izango da langabezia sarierkin.

4. Bekaren onuradunek zilegi izango dute prestakuntza hobetzeko bateragarriak diren ikasketak egitea prestakuntza beka daukaten artean.

Hamahirugarrena. Dirulaguntzak ordaintzea

1. Dirulaguntzak SEA Empresarios Alaveses elkartearen bidez ordainduko dira.

2. Bekaren diru hornidura baliatuko da bekadunarentzako dirulaguntza poltsa bat ordaintzeko, hileko bostehun eta hirurogeita lau eta hirurogeita hamasei zentimokoa (564,76 euro), eta, horietatik, Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotak kenduko dira. Era berean, hilean hileko ordainketa hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atxikipenen pean egongo da.

3. Ordainketa, eskuarki, hilabeteko epemuga betetzean egingo da.

Ordaindutako zenbatekoak ez du soldata edo ordainsari izaera; beka berekin dakartzan gastuetarako dirulaguntza baino ez da.

Hamalaugarrena. Lege araubidea eta interpretazioa

Oinarri orokorretan xedatutakoak arautuko du deialdi honetarako ezarritako prozedura. Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, zalantza hori Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaileak argituko du.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 4a

Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
JOSEBA KOLDO PEREZ DE HEREDIA ARBIGANO

I. ERANSKINA**UNIBERTSITATE TITULUDUNENTZAKO BEKAK (5), PROFIL
HAUETAKOEN ARTEAN BANATUKO DIRA:**

- U01 kodea: Ingeniaritza informatikoko gradua
 U02 kodea: Ingeniaritzako beste gradu batzuk
 U03 kodea: Ingeniaritzako masterra
 U04 kodea: Enpresa administrazio eta zuzendaritzako gradua
 U05 kodea: Auditoria masterra (kontuak, finantza, kontabilitatea)

**LANBIDE HEZIKETAKO TITULUDUNENTZAKO BEKAK (5),
PROFIL HAUETAKOEN ARTEAN BANATUKO DIRA:**

- FP01 kodea: Administrazioa eta kudeaketa
 FP02 kodea: Merkataritza eta marketina
 FP03 kodea: Elektrizitatea eta elektronika
 FP04 kodea: Fabrikazio mekanikoa
 FP05 kodea: Ostalaritza
 FP06 kodea: Instalazioa eta mantentzea

II. ERANSKINA**Merezimenduen balioespena**

	Gehiegizko puntuazioa	Prestakuntza eta gaitasuna
Baremazio orokorra 1go fasea 18ra	10	1. Graduaren espediente akademikoaren batez besteko nota Masterraren edo graduondoaren espediente akademikoaren batez besteko nota
	3	2. Euskara ezaupideak
	3	3. Beste hizkuntza batzuen ezaupideak
	2	4. IT txartelen ziurtagiriak
Baremazio espezifikoa 2. fasea 8ra	8	5. Elkarriketa

BAREMAZIOA**1. Espediente akademikoaren batez besteko nota**

• Gradu, master edo graduondo eta Lanbide Heziketako goi graduatarako, espediente akademikoaren ziurtagirian agertzen den batez besteko nota (5-10) jarriko da. (Dagokion prestakuntza zentroak izenpetu eta zigilatuko du ziurtagiria).

2. Euskara ezaupideak

• Europako esparrurako tituluaren arabera puntuak jarriko dira:

- B1 maila: erdi-mailako ezaupideak.1,5
 B2 maila: erdi-/goi-mailako ezaupideak.2
 C1 maila: maila aurreratuko ezaupideak.2,5
 C2 maila: maila oso aurreratuko ezaupideak.3

3. Beste hizkuntza batzuen ezaupideak

- Europako esparrurako tituluaren arabera puntuak jarriko dira:

A1 maila: hastapen mailako ezaupideak.0,5

A2 maila: oinarrizko mailako ezaupideak.1

B1 maila: erdi-mailako ezaupideak.1,5

B2 maila: erdi-/goi-mailako ezaupideak.2

C1 maila: maila aurreratuko ezaupideak.2,5

C2 maila: maila oso aurreratuko ezaupideak.3

4. IT txartelen ziurtagiriak

- IT txartelen ziurtagiri bakoitzeko 0,10 puntu emango da. Sail honetan, gehienez, 2 puntu emango dira.

5. Elkarrizketa Gehienez ere 8 puntu emango dira honako hauengatik: deialdiaren laugarren klausulan aipatzen diren alderdiak; hautagaiek inguruneari egokitzeko duten gaitasuna; haien motibazioa, heldutasuna, jarrera, gaitasuna; komunikatzeko gaitasuna; eta profilaren egokitasuna.